

Aurten, bederen, egiterik espero ez genuen zenbaki monografikoa da hau. Bortxaz sartu zaigu 240. zenbaki hau eguneroko lanean, Torrealdairen beraren heriotza nola. Bera hil ondotik asko idatzi da eta askok idatzi dute. Zer gehiago esan genezakeen. Ehunka artikulu, iritzi, dolumin, adierazpen eta oroitzapen agertu dira hedabideetan. Utzi duen itzal luzearen adierazgarri. Izan ere, esparru askotan jardun izan du, jardun eta bizi, eta bizitza eman ere bai. Eta guztietan sakonetik, urrats gutxi emango zuen ustekabeko bisitari baten maneran. Beti urratsa luze, sakon eta urrutira joateko intentzioarekin. Beti eraikitsera, beti irautera, beti sendotzera. Eredu asko baina eremu bakarra. Euskara. Euskara guk egiten dugula bizi eta euskarak gu egiten gaituela herri sinetsita. Euskara herri. Ez dago beste misteriorik. Geure buruaren defentsa eskuzabala baino, geure buruarentzat eta geure beste guztientzat. Euskararen Amaiur honetan, idatzi genuen hiltzeretan. Bidegurutzean, borrokan, bizi nahian eta ezin bizian. Irabazteko eta emateko mundu hobeago baten hazia geure euskaratasunean dugula.

Esparruak zedarrituta eta goldatuta utzi ditu; lehen uzta askoren ereile eta jagole izan da, eta landu duen eremu askotan mintegi izan da, eskola sortu du, aldi berean ikertzaile, eragile, gidari eta militante izan delako. Hori islatu nahi izan dugu zenbaki monografiko honetan, eta, horregatik, Torrealdai landutako bost eremu hautatu eta bost adituri –eta esango genuke bostak Torrealdairen katean ondorengo katebegi– haren ekarpena eta ekarpenaren nolakotasuna eta garrantzia eta etorkizuneko proiektioa hitzetara ekartzeko eskatu diegu. Dabid Anautek euskalgintzan aztertu du Torrealdai; liburugintzaren ikerketa soziologikoan bost hamarkadatan zehar egindakoak aletu ditu Garazi Arrulak; Imanol Muruak euskarazko hedabideetan egin zuen lan eskerga ikertu du; Lourdes Otaegik zentsuraren esparruan sortu zuen eskola xehatu du; eta Agurtzane Juanenak Torrealdairen amets ez gauzatu izan zen liburutegi nazionalaren egitasmoa berri du. Torrealdairen ekarpena. Torrealdairen lezioak.

Torrealdairen bizitza eta bizi indarra azpimarratu dute, berriz, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi eta Paulo Agirrebaltzategi jakin-

lari historikoek. Berrogeita hamar urtetik gora adiskide, gogaide eta lankide izan zutena hunkiduraz gogoratu dute aurrez aurreko mahainguru batean. Bukatzeko, Torrealdaik berak, Manuel Lekuona saria zela-eta, orain bost urte idatzi zuen autobiografia berreskuratu dugu. Tituluan, den-dena, bizi, idatzi, ikertu eta borrokatu-tako dena, laburbiltzen duen goiburua: katea ez dadin eten.

Eta Unai Iturriagak buru-bihotz ilustratu du kontrazalean.